

## **FUNTSEZKO JARDUERAK**

Gure enpresa koordinatu ahal izateko, bakoitzak rol definitu bat eduki behar du, garbiketarako, programaziorako, salmentarako... Horretarako, guk egin behar ditugun lanak ulertu eta beste enpresek egin behar dituzten lanak bereizi beharko ditugu jarduera garrantzitsuenatik ez hain garrantzitsuetara ordenatuz.

Gure proiekturako ezinbestekoak diren jarduera batzuk gure esku egongo dira. Hasieran gu izango gara udaletxez-udaletxez joango garenak gure produktua erakusten eta funtzionamendua azaltzen, jarduera hau garrantzitsuenetako bat izango da, hor edukiko dugulako aukera gure produktua saltzeko. Gure produktuaren publizitatea gure esku egongo da, guk izango gara posterrak egingo dituztenak, beraz guk eginbeharrekoak oso garrantzitsuak dira, eta ez badegu gure ideiei ondo azaltzen gure proiektuak ez du arrakasta izango. Azkenik, enpresaren kontuetaz ere gu arduratuko gara, enpresaren kontuak egingo ditugu, hau da, zenbat diru irten eta etorri zaigun.

Honek ez du esan nahi gu bakarrik gauza batzuetaz arduratuko garenik, gu langile guztiekin egongo gara beraien lana ondo egin dezaten, azkenean guk izango gara proiektua kontrolatuko dutenak. Beraz guk kontratatuko ditugu eta hor hasiko da gure lana, gure langileak ondo aukeratzea ezinbestekoa izango da, eta gure langileak beti egon beharko dira prest talde lana egiteko. Langile bakoitzari bere %100 emateko eskatuz.



Beste jarduera batzuk berriz, gu ez garen beste pertsona batzuk egin beharko dute, eta jarduera horiek nahiz eta gure esku ez egon oso garrantzitsuak dira. QR-aren sorrera izango da, hau patinetetan egon behar da, eta eskaneatzen patinetea funtzionatzen hasi beharko da, beraz hori gaizki egiten badugu gure proiektuak ez du funtzionatuko. Bestalde, programatzailerik bat ere kontratatu beharko dugu, gure aplikazioa sor dezan eta eduki ditzakeen arazoak konpontzeko.

Azkenik gure proiektua hobetu ahal izateko gure bezeroak gure aplikaziotik beraien iritzia eman diezagite, horrela guk hobetzeko aukera izango genuke, gure bezeroen iritzia kontuan hartuz eta gure enpresa barruan hobekuntzak eginez.